

ITXAROPENA BELDURRIK GABE

Pastoral ikasturte berria 2020-21

Garai latzak dira hauek, eta asko dira nahastuak sentitzen direnak, nola edo hala, gure inguruan gertatzen ari diren albiste eta gertaera mingarriekin. Nahasmenak, nolabaiteko beldurra du atzetik, eta erantzukizun zibikoak, zalantzak eta mugimendu kontraesankorrak ditu alboan.

Zer egin behar da? Betiko egoerara itzuli? Esperientzia berriak hasi? Gure ahalegina okarren daudenengana bideratu? Eta nola gaude gu, CARITAS GIPUZKOAKo langile eta boluntarioak? Nahasiak, lausotuak, zalantzak dauzkagu?

Frantzisko Aita Santuak duela urte batzuk esan ziguna proposatzen dizuet: “Jainkoaren errukiak mugitu behar gaitu. Errukia pertsona bakoitzaren bihotzean, bizitzaren bidean aurkitzen duen anaiari begi zintzoz begiratzen dionean dagoen oinarrizko legea dela jakin behar dugu” (Misericordiae vultus, 2. zk.).

Honoko hau, hain zuzen ere, “bizitzaren bidean aurkitzen dugun anaia edo arrebari begi zintzoekin begiratzea”. Adierazpen ederra da. Bizitzaren bidea, hau da, inguruan gertatzen denari adi bizi denaren bizitza; bidean inor ez zanpatzea bilatzen ari denaren bizitza; bere izatea eraikitzen ari den ibiltariaren bizitza, baten ondoan dauden beste hainbatekin batera, elkar ezagutzen ez bagara ere. Eguneroko bizitza da benetan, baina ez da nolanahi bizitutakoa, bizitzari begiratzen dakiten begi zintzoekin baizik.

“Misericordiazko begiradak gure bidexka ezagunetatik ateratzen gaituela eta gure erosotasuna errotik hausten duela”, dio Elizbarrutiko Pastoral Markoak. Zer zaila den ohiturak haustea, ezagutzen ditugun bidexkak, alegia. Badirudi dena dakigula, dena kontrolatzen dugula, jarrai dezakegula, ezerk eta inork ez gaituela mugituko. Baina errealitatea irakurtzen jakin behar da, pertsonak gure lanaren erdigunean jarri, garraisi egiten dutenei begiratu, eta hainbeste pertsona larritzen dituen oinazea sentitu.

Proposatzen dizuet ez dezagun beldurrik izan denboraren zeinuak irakurtzeko (gure artean gertatzen dena), maitasun-begiekin irakur dezagula (ongia egiteko nahiarekin), eta senti dezagun zer on dugun guregan, eta gure ondoan, hobetzen eta eraikitzen lagunduko digun akuilu gisa, atzera begiratu gabe, baizik eta beti pertsona eskuzabalak, emanak eta baikorrak eskatuko dituen etorkizunari begira.

Gure erronka, Jesusen Ebanjelioa da, bizitza egina, "gauza on" gisa onartua izatea, pertsona pobre eta behartsuen ongizaterako, inor bakarrik eta abandonatuta senti ez dadin. Guztiok egin behar duguna egin dezagun, egiazko karitatearekin, pazientzia eta irmotasunez lagunduz, guztioi, bakea eta harmonia inoiz galdu gabe, hain bidegabekeria, min eta sufrimendu handia dagoela baieztatzen ari garen garai hauetan.